

PRENTSAURREKOA

XXVII. GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTA



BIDANIA-GOITZ 2014KO EKAINAK 8





2014ko Eskola Txikien Festa

Bidania-Goiatzen egingo da ekainaren 8an

Eskola Txikien Koordinakundea: Nagore Iñurrategi

Egunon eta eskerrik asko hona inguratu zareten guztioi!

Gaur, maiatzak 29, Bidania-Goiazko Txinkorta eskolan elkartu gara ekainaren 8an ospatuko den XXVII. Gipuzkoako Eskola Txikien festa aurkezteko. Dagokion bezalako aurkezpena egiteko mahai honetan ondorengoak bildu gara:

- Ernio Guraso Elkartekoa: Iban Muñoa
- Txinkorta eskolako zuzendaria: Saioa Urdangarin
- Txinkorta eskolako ikaslea: Jon Altuna
- Bidania-Goiazko Alkatea: Joxe Erramun Goikoetxea
- Eskola Txikien irakasleen koordinakundea: Mikel Goñi
- BAIKARA: Imanol Zubizarreta
- Eskola Txikien Koordinakundea: Nagore Iñurrategi

Orain 27 urte, hemen, Bidania-Goiatzen, hasi zen mugimendu eder hau “Eskola Txikiak Bizirik” lelopean. Geroztik, urtero batu gara Eskola Txikien Komunitatea osatzen dugun herri-azokideak, festa giroan, eskola herrian edo auzoan izateak duen garrantzia aldarrikatzeko. Izan ere, oso garrantzitsua baita, bai herri eta auzo txikien biziraupenerako, bai eta, herritarrak hezi eta errotzeko ere. Horregatik, urtero lelo berdina dugu: **“ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK, HERRI ETA AUZO TXIKIAK BIZIRIK”**.

Ernio Guraso Elkartea: Iban Muñoa

Aurtengo Eskola Txikien Festan haurrak inoiz baino protagonistagoak izango dira eta egun horretarako ekimen guztiak haurren gozamenerako prestatu dira. Goiza, harrera ekitaldi xume eta labur batekin hasiko da, ondoren, bi “kross txiki” antolatuko dira. Horren ostean, haur txikientzat tailerrak eta puzgarriak izango dira eta handiagoentzat berriz zenbait joko prestatuko dira.

Eguerdian, aurretik tiketak erosiak dituztenek, bazkaria izango dute frontoian. Eta gainontzekoek, ogitartekoak erosteko aukera izango dute antolatzaileek festa gunean bertan jarriko duten tabernan.

Arratsaldean berriz, Euskal Herriko pailazorik ezagunenak izango dira 16:00etatik aurrera: Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek Bizipoza emanaldi arrakastatsua eskainiko dute. Haurrek gozatu ederra hartzeko aukera izango dute eta gogoratu behar da emanaldi hau ikusteko ez dela sarrerarik ordaindu beharko.

Pailazoak ikusi nahi ez dituzten haurrak ez dira aspertuko, puzgarrietan ibiltzeko aukera izango dute eta hainbat tailerretan parte hartzeko ere bai. Horrez gain, Txinkorta eskolan, bideo emanaldiak izango dira. Musikak ere tarte garrantzitsua izango du egun guztian, Skandalue elektrotzaranga izango baita festa hau girotzen.

Duela 27 urte sortu zen Bidania-Goiatzen Eskola Txikien Festa eta bigarren aldiz antolatuko da festa hau herri honetan. Nahiz eta Txinkorta eskola 2000. urtean eraiki, Bidania-Goiatzek eskola izan du betidanik eta horixe izan da herria bizirik mantentzearen arrazoietakoa bat. Txinkortak Eskola Txiki batek dituen





berezitasunak eta ezaugarriak dituela nabarmendu beharra daukagu, esanetarako eskola honetan talde txikiak eratzen dira eta adin desberdineko haurrek gela berean ikasten dute. Horri esker, elkarreragina eta lankidetzaren sustatzen dira giro atseginean eta elkarbitza baloreak lantzeko proposa da oso.

Bidania-Goiazko alkatea: Joxe Erramun Goikoetxea

Txinkorta, herriko eskola bakarra da eta herriaren nortasuna eta kulturaren transmisioa bultzatzeko ere balio handikoa da. Eskola publikoa da eta euskararen erabilerarako eta honen sustapenerako tresna funtsezkoa da, euskara baitu hizkuntza ardatza.

Txinkorta eskolako zuzendaria: Saioa Urdangarin

Txinkorta eskolak 52 ikasle, 10 irakasle eta 36 familia ditu. Momentu honetan, bost gelaz osatua dago. Eskola txikia izateak, irakasle eta gurasoen arteko harremana eta lankidetzaren errazten du. Aldi berean, herriarekiko lotura bultzatzen du, guztiak bizirik mantenduz. Honen adibide da aurtengo festa antolatzeke denok egin dugun ahalegina urtean zehar hainbat ekintza aurrera eramanez.

Eskola txikien irakasleen koordinatzailea: Mikel Goñi

Elkarreraginean eta kooperazioan jarraitu behar dugulako beste hainbeste urtez.

BAIKARA: Imanol Zubizarreta

BAIKARA-k eta EHIGE-k, orain arte bezala, aurrean ere Eskola Txikien gurgilari bultzada emango diogu.

Txinkorta eskolako ikaslea: Jon Altuna

Ekainaren 8an denok Bidania-Goiazera gonbidatuta zaudete!

Ernio Guraso Elkarte: Iban Muñoa

Gaurko aurkezpena bukatzeko, gure eskolako haur eta irakasleek gure festako "BIRAKA!" abestiaren koreografia dantzatuko digute.

Mila esker etorri zareten guztioi!

